


**zer ote?**  
Zizurkilgo aisialdirako gida

**UZTAILA**  
156. Zenbakia / Uda 2017  
www.zizurkil.eus / 943 691012  
ErnioBidea 9A, behea  
20159 ZIZURKIL



# UZTAILA GAZTEZULON

2017



Animatu!!



**Eta izena eman zuk ere!!**

Izen emate orriak udal bulegoetan,  
astelehenetik ostiralera 9:00 - 14:00.

13 - 17  
urte



## UZTAILA

| ASTELEHENA                              | ASTEARTEA                       | OSTEGUNA   | OSTIRALA                        |
|---|---------------------------------|--|---------------------------------|
| 03 DONOSTIAKO ROKODROMORA (GOIZEZ). 6 € | 04 GAZTEZULO IREKITA 9:45-13:15 | 06 HERNANIKO IGERILEKURA (EGUN OSORAKO) 2€   | 07 GAZTEZULO IREKITA 9:45-13:15 |
| 10 SUKALDARITZA "PARRILLADA"            | 11 ITXITA                       | 13 KONTXAKO HONDARTZAN PADDLE-SURF. 12€  | 14 ATE IREKIAK                  |
| 17 LEITZARANGO ERREKARA (GOIZEZ)        | 18 GAZTEZULO IREKITA 9:45-13:15 | 20 eta 21 BILBORA 2 EGUNEKO IRTEERA: ZUBI ESEKIA, HONDARTZA, GUGGENHEIM, SAN MAMES ... 45€ |                                 |
| 24 GAZTE CUP FINALA ERREBOTE PLAZAN     | 25 ITXITA                       | 27 ITXITA  | 28 ITXITA                       |
| 31 ITXITA                               |                                 |  |                                 |

Izen emateak:  
Gaztezulon,  
626 623 107

## EUSKARA

**Uztailak 21** OPORRETAN EUSKARAZ udaleku irekien AMAIERA FESTA.

### UDA IKASTAROETARAKO DIRU LAGUNTZAK:

Udalak Udako Ikastaroetan parte hartzen duten zizurkildarrei matrikulak ordaintzeko diru laguntzak emango dizkie. Informazio gehiago Joxe Arregi plazako udal-bulegoetan.



### GERRA ZIBILARI BURUZKO AUZOLANDEGIAK CAMPOS DE TRABAJO

Zizurkil, Aduna, Asteasu eta Larraulgo Udalek Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera, AUZOLANDEGIAK antolatu dituzte. 18-30 urte bitarteko gazteei bideratutako auzolandegia da, eta uztailaren 3tik 16ra bitartean egingo da. Bertan, Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo mendi aldean gelditzen diren lubakiak eta aztarnak garbitu eta arkeologikoki dokumentatuko dira. Gaiaren inguruan interesa izan dezakeen edonork indusketak bisitatzeko aukera izango du: UZTAILAREN 14an 11:00etan ZARATEN bilduko da taldea.

## PAREKIDETASUNA

JAIETARAKO INDARKERIA MATXISTA KASUETARAKO PROTOKOLOAREN ZEHAZTEA HERRI ERAGILEEN PARTEHARTZEAREKIN:  
/PROCOLO CONTRA AGRESIONES MACHISTAS EN FIESTAS

Hurrengo datak:

**Uztailak 5**

**Uztailak 19**

**Zatoz!  
Zure iritzia  
garrantzitsua da!**



## ERAKUSKETA ETA TAILERRA

### TALLER DE REALIZACIÓN DE COJINES

AMINA CHAAIRI (Tetuan, 1976)

**Uztailak 7** Kuxinak egiteko tailerra. 17:00etatik 19:00etara. Izen emateak Udal bulegoan. Zaintza zerbitzua egongo da.



## KIROLA

### III. MALLI MEMORIALA:

Partidak uztailleko larunbatetan jokatu dira. Finala, abuztuaren 14an, gaueko 22:00etan, Zizurkil goiko festen barnean.

## BESTELAKOAK

### ELBARRENAKO FESTETAKO KARTEL LEHIAKETA/ CONCURSO DE CARTEL PARA LAS FIESTAS DE ELBARRENA

Edozeinek parte har dezake, lana DINA 4 tamainan, paperean edo JPG formatuan (gutxinez 300 p.p.p.-ko bereizmenarekin) aurkeztu beharko da. Lanak argitaragabea eta jatorrizkoa izan behar du, nahi adina koloretan eta teknika libre erabil daiteke. Testua: **“Zizurkilgo jaiak 2017. Irailak (5), 6,7,8,9,10”**. Lanak aurkezteko azken eguna uztailak 14. Non aurkeztu: Udal bulegoetan (Joxe Arregi plaza), Udal liburutegian edo [zizurkil@live.com](mailto:zizurkil@live.com) helbidera bidaliz. Saria: 150 euro eta herri afarirako 2 txartel.

**ONDO PASA OPORRETAN!  
ZER OTE? ERE BADOA IRAILERA ARTE.**